

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2025eko azaroa

Euskal AEko apartamentu turistikoetan sarrerak % 4,7 igo dira 2025eko azaroan, eta landa-ostatueta % 7,1 jaitsi dira

Turismo-aterpetxeetako sarrera kopurua % 7 handitu da

Euskal AEko **landetxeetan** sarrerak % 7,1 murriztu dira eta ostatu-gauak % 11,1, aurreko urteko hil beraren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Urte batetik bestera izandako aldaketa horiekin, sarrera kopurua 9.593koa izatera iritsi da azaroan, eta ostatu-gauen kopurua 20.532 izan da.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Azaroa 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025/11	m/m-12 (%)	2025/11	m/m-12 (%)	2025/11	2024/11	2025/11	p.p. *	2025/11	p.p. *
EUSKAL AE	9.593	-7,1	20.532	-11,1	2,14	2,24	16,7	-2,0	21,0	-2,1
Estatukoak	8.300	-8,7	16.996	-15,5	2,05	2,21	-	-	-	-
Atzerritarrak	1.293	4,8	3.536	19,2	2,73	2,40	-	-	-	-
Araba/Álava	1.980	-20,2	4.452	-16,3	2,25	2,15	14,2	-2,3	17,4	-2,9
Estatukoak	1.777	-23,8	3.506	-28,9	1,97	2,12	-	-	-	-
Atzerritarrak	203	37,2	946	143,2	4,66	2,63	-	-	-	-
Bizkaia	2.614	-19,0	5.469	-18,5	2,09	2,08	16,4	-3,2	21,4	-3,0
Estatukoak	2.250	-23,5	4.802	-20,3	2,13	2,05	-	-	-	-
Atzerritarrak	364	27,3	667	-3,3	1,83	2,41	-	-	-	-
Gipuzkoa	4.999	8,3	10.611	-4,0	2,12	2,40	18,1	-1,1	22,7	-1,0
Estatukoak	4.273	12,0	8.688	-5,2	2,03	2,40	-	-	-	-
Atzerritarrak	726	-9,3	1.923	1,9	2,65	2,36	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Abenduaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko azaroarekin alderatuta % 4,8 handitu ondoren, atzerriko bisitarien sarrerak Euskal AEko landetxeetan izandako sarrera guztien % 13,5 izan dira 2025eko azaroan. Ostatu-gauen kasuan, bestalde, atzerritar jatorrikoenak guztizkoaren % 17,2 izan dira, 2024ko azaroaren aldean % 19,2 handitu ondoren.

Lurralde historikoen arabera, Araban sarrerak % 20,2 jaitsi dira eta Bizkaian % 19,0; Gipuzkoan, berriz, % 8,3 igo dira. Ostatu-gauei dagokienez, Bizkaian % 18,5 jaitsi dira, Araban % 16,3 eta Gipuzkoan % 4,0.

Euskal AEn mota horretako establezimenduetan batez besteko egonaldia 2,14 egunekoa izan da 2025eko azaroan, aurreko urteko hil berean izandako 2,24 egunekoa batez besteko egonaldia baino pixka bat laburragoa¹.

Plazen okupazio-maila ehuneko 2 puntu txikiagoa izan da 2024ko azaroan izandakoa baino, eta % 16,7an kokatzen da. Logelen arabera okupazioak, bestalde, ehuneko 2,1 puntu egin du behera urte batetik bestera, eta azken hilabete honetan % 21,0ekoa izan da.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2025eko azaroan 14.789 sarrera erregistratu dira; horren ondorioz, 55.741 ostatu-gau izan dira. Datu horiek aurreko urteko azarokoekin alderatuz gero, igoera % 4,7koa izan da sarreraren kasuan eta % 7,7koa ostatu-gauen kasuan.

Apartamentu turistiko² esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten ardurapean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Azaroa 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamendua	
	2025/11	m/m-12 (%)	2025/11	m/m-12 (%)	2025/11	2024/11	2025/11	p.p. *	2025/11	p.p. *
EUSKAL AE	14.789	4,7	55.741	7,7	3,77	3,66	31,7	-1,1	64,6	1,4
Estatukoak	10.546	-0,1	36.542	2,2	3,46	3,38	-	-	-	-
Atzeritarrak	4.243	18,9	19.198	20,0	4,52	4,48	-	-	-	-
Araba/Álava	657	22,1	8.276	-3,8	12,60	15,98	24,8	-2,1	65,6	-10,0
Estatukoak	559	14,9	4.957	-13,4	8,87	11,77	-	-	-	-
Atzeritarrak	98	89,6	3.320	15,5	30,00	30,00	-	-	-	-
Bizkaia	10.870	7,7	29.221	26,4	2,69	2,29	32,4	0,1	60,9	12,6
Estatukoak	7.732	2,1	19.174	18,1	2,48	2,14	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.138	24,8	10.047	46,0	3,20	2,74	-	-	-	-
Gipuzkoa	3.262	-6,8	18.243	-8,9	5,59	5,72	34,7	-2,2	69,1	-5,1
Estatukoak	2.255	-9,8	12.412	-9,9	5,50	5,51	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.007	0,5	5.831	-6,6	5,79	6,23	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Abenduaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetan izandako sarrera guztien % 28,7 eta ostatu-gau guztien % 34,4 atzerriko jatorriko bisitariei dagozkie, azaroan urte batetik bestera % 18,9ko eta % 20,0ko igoerak erregistratu ondoren, hurrenez hurren.

¹ Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn ematen duten egonaldi osoaren iraupenari.

² **Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak**, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 3,77 egunekoa izan da 2025eko azaroan, hau da, 2024ko azarokoa (3,66 egun) baino pixka bat handiagoa Euskal AE osoan. Mota horretako establezimenduetan batez besteko egonaldia 12,60 egunekoa izan da Araban, 5,59 egunekoa Gipuzkoan eta 2,69 egunekoa Bizkaian.

Plazen okupazio-maila, Euskal AEn, % 31,7koa izan da azken hilabete honetan, hau da, 2024ko azaroan baino ehuneko 1,1 puntu txikiagoa. Apartamentu bakoitzeko okupazio-maila, aldiz, ehuneko 1,4 puntu igo da, eta % 64,6ra iritsi da.

Euskal AEko **turismo-aterpetxeei** dagokienez, 2025eko azaroan urtetik urterako sarrerak % 7,0 igo dira —13.805 guztira—, eta horrek 25.772 ostatu-gau erregistratzea eragin du, hots, urtebete lehenago baino % 10,8 gehiago. Bizkaian 8.473 sarrera erregistratu dira, Gipuzkoan 4.232 eta, azkenik, Araban 1.100 sarrera izan dira mota horretako ostatueta.

Euskal AEko turismo-aterpetxeetako egonaldiaren batez besteko iraupena, 2025eko azaroan, 1,87 egunekoa izan da, eta plazakako betetze-maila, berriz, % 25,8koa, ehuneko 0,9 puntuko urte arteko igoeraren ondoren.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gaudiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Azaroa 2025

	Sarrerak		Gaudiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2025/11	m/m-12 (%)	2025/11	m/m-12 (%)	2025/11	2024/11	2025/11	p.p.
EUSKAL AE	13.805	7,0	25.772	10,8	1,87	1,80	25,8	0,9
Estatukoak	7.538	9,6	13.192	9,7	1,75	1,75	-	-
Atzeritarrak	6.267	4,1	12.580	11,9	2,01	1,87	-	-
Araba/Álava	1.100	106,4	1.470	107,1	1,34	1,33	33,2	19,0
Estatukoak	890	75,1	1.228	79,4	1,38	1,35	-	-
Atzeritarrak	210	740,2	242	865,7	1,15	1,00	-	-
Bizkaia	8.473	14,0	16.376	14,9	1,93	1,92	32,6	0,8
Estatukoak	4.467	16,7	7.663	13,1	1,72	1,77	-	-
Atzeritarrak	4.007	11,1	8.713	16,5	2,17	2,07	-	-
Gipuzkoa	4.232	-14,2	7.926	-4,5	1,87	1,68	17,6	-1,6
Estatukoak	2.182	-14,3	4.301	-5,8	1,97	1,79	-	-
Atzeritarrak	2.050	-14,2	3.625	-3,0	1,77	1,56	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Abenduaren 23a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Datu metatuak (2025eko urtarrila-azaroa)

2025ean, orain arte, Euskal AEko **landetxeetan** 171.538 sarrera erregistratu dira eta 445.862 ostatu-gau; 2024ko aldi berean bildutako datuak baino % 5.1 gainetik bi kasuetan. Batez besteko egonaldia 2,60 egunekoa izan da, hau da, aurreko urtekoaren berdina. Okupazio-mailari dagokionez, plazen arabera neurtuta, % 32,2ra iritsi da, 2024ko aldi metatu berean % 30,2ra iritsi zen bitartean. Gelaka neurtuz gero, okupazio-maila 2024an erregistratu zen % 35,1en gainetik dago, 2025eko lehen hamaika hilabete hauetan % 37,4koa izatera helduz.

Apartamentu turistikoei dagokienez, azarora arte metatutako aldian 260.433 sarrera izan dira, eta 774.079 ostatu-gau; horrek esan nahi du % 30,6ko igoera izan dela sarreretan, eta % 16,3koa ostatu-gauetan, 2024ko aldi beraren aldean. Batez besteko egonaldia 2,97 egunekoa izan zen 2025eko lehen hamaika hilabeteetan, 2024ko aldi berean 3,34 egunekoa izan zen bitartean. Plazen araberako okupazio-maila % 40,2koa izan da, 2024ko aldi berean erregistratutakoaren berbera. Apartamentuen araberako okupazio-maila % 71,9koa izan da, 2024ko aldi baliokidean erregistratutakoa baino ehuneko 5,4 puntu gainerik.

Turismo-aterpetxeei dagokienez, 2025ean 253.290 sarrera eta 455.257 ostatu-gau izan dira, % 4,7 gehiago sarreraren kasuan eta % 4,2 gehiago ostatu-gauen kasuan, 2024ko hilabete berberekin alderatuta. Batez besteko egonaldia 1,80 egunekoa izan da, aurreko urteko aldi metatuko 1,81 egunak baino pixka bat txikiagoa. Plazen araberako okupazio-maila, azkenik, % 40,6koa izan da, 2024ko aldi berean erregistratutakoa baino % 0,7 puntu gainerik.

Informazio-oharra

ETHren inguruan emandako erantzun-tasa hilabete honetan % **91,2**koa izan da landetxetan, % **84,5**koa turismo-apartamentuetan eta % **88,1**koa turismo-aterpetxeetan. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62